

Eta guk, zer?

ARLOA:
Euskara
GAIA:
Ikasleek euskara gehiago egiteko, bai norbanako mailan, bai taldean har ditzaketen erabaki eta konpromisoak
MAILA:
DBH 1-2-3-4
SAIO KOPURUA:
8 saio

AZKEN XEDEA:
Azken sekuentzia honetan, bai norbanako gisa, eta bai talde gisa –gelan edo eskolan– euskara gehiago erabiltzeko zer egin daitekeen aztertuko dugu: zein helburu jar daitezkeen, zer nolako metodoak erabili helburu horiek lortzeko, alda daitezkeen jokaerak, har daitezkeen erabaki eta konpromisoak, etab. Helburua, beraz, epe labur eta ertainera begira, gaur egun egiten dena baino euskara gehiago egin dadin lortzea da. Gaur egun zenbat eta nola egiten duten, eta helburu gisa zer jarriko luketen aintzat harturik esketx emanaldi bat prestatuko dute sekuentzia honi amaiera emateko. Esketx horietan bi egoera irudikatuko dira: “Gaur” eta “Gero”.
LANDUKO DIREN OINARRIZKO KONPETENTZIAK
KONPETENTZIA OROKORRAK: 1. Ikasten ikasteko konpetentzia: Pentsatzen eta ikasten jakitea. 2. Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia, eta teknologia digital eta mediatikoa erabiltzeko konpetentzia: Komunikatzen jakitea. 3. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia: Elkarrekin bizitzen jakitea. 4. Norberaren autonomiarako konpetentzia: Izaten jakitea. 5. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentzia. Ekimenez jokatzeko jakitea. ZE HAR KONPETENTZIAK: 1. Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia: Hizkuntzak eta Literatura. 2. Teknologiarako konpetentzia: Teknologia. 3. Arterako konpetentzia: Plastika eta ikus entzunezko adierazpena. 4. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia: Gizarte zientziak.
HELBURU DIDAKTIKOAK:
2., 3., 4., 7. eta 8. helburuak

JARDUEREN SEKUENTZIA:**EGOERA KOMUNIKATIBOAREN AURKEZPENA**

1. JARDUERA: ZER DIOTE GAZTEEK?

TESTUINGURATZEA

2. JARDUERA: NON EGITEN DUGU ETA NON EZ?

3. JARDUERA: BIDAIA BATEN HASIERA

4. JARDUERA: ESKETX BAT ANTZEZTUKO DUGU

GARAPEN FASEA

5. JARDUERA: HELBURU BILA

6. JARDUERA: NONDIK HASI?

7. JARDUERA: TALDEKO HELBURUA

8. JARDUERA: ESKETXA ZEHAZTEN

GAUZATZE FASEA

9. JARDUERA: ERAGOZPENAK GAINDITZEKO AHOLKUAK

10. JARDUERA: ATZERA BEGIRAKOA

11. JARDUERA: ESKETXA PRESTA DEZAGUN

XEDEA GAUZATZEA

12. JARDUERA: ESKETXEN EMANALDIA

EBALUAZIOA

13. JARDUERA: LANEN EBALUAZIOA

EGOERA KOMUNIKATIBOAREN AURKEZPENA

1. JARDUERA: ZER DIOTE GAZTEEK?

Helduek orokorrean, askotan hitz egiten dute gazteei buruz, baina gutxiegitan entzuten dituzte. Horregatik, jarduera hasteko, gazteen ahotsa jaso duen Maite Quintanilla gazte ikerlariaren iritziak entzungo dituzte talde handian.



Honako hauek dira Quintanillak elkarriketan azaldu dituen ideia nagusiak.

	Oso ados	Nahiko a ados	Ez ados, ez desados	Ez oso ados	Batere ados ez
Gazteak, orokorrean, epaituak sentitzen dira, hizkuntzaren gaia dela eta.					
Gazteen ustez, gutxi galdetzen zaie gai honen inguruan.					
Euskararen aldeko hautu kontzientea egin duten gazteek eragin handia dute besteengan.					
Euskara, esperientzia eta bizipen positiboekin lotu behar da, eta maila horretan, berebiziko garrantzia du aisialdiko eskaintzak.					

Ikasle bakoitzak, lan-koadernoan, esaldi horietako bakoitzarekin ea zein neurritan dagoen ados ala ez markatuko du. Ondoren, arbelean, gelan izandako erantzunak nola banatzen diren apuntatuko dute eta beraien iritziak talde handian kontrastatu.

TESTUINGURATZEA

2. JARDUERA: NON EGITEN DUGU ETA NON EZ?

Bai norbanakoen, bai taldearen hizkuntza praktikak aldatu nahi baditugu, lehenik eta behin, ikasleek, beren eguneroko jardura arruntetan zenbat euskara, eta zein baldintzatan egiten duten jakin beharko dugu.

Erreferentzia gisa, bi bideo ikusiko ditugu. Batetik, Bergarako gazteen hizkuntza praktikak zeintzuk diren eta ondoren, Zarauzko Orokieta Herri Eskolako haurrek etxean zein hizkuntzatan egiten duten.



Bideoak ikusi eta gero, ikasleek beren ohiko harreman-esparruen eta jardueren zerrenda osatuko dute talde txikitan eta zehaztu beharko dute horietako bakoitzean euskaraz zenbat egiten duten. Horretarako, 8. eta 9. sekuentzietako tauletako datuak ere erabil ditzakete. Aurreragoko jardura batean, taula hau erreferentziazat hartuko dugu, euskararen erabileraren aldeko pausoak non eman ditzaketen erraz identifikatu ahal izateko.

Harreman-esparruak edo jarduerak	Nagusiki edo beti euskaraz	Bi hizkuntzetan berdintsu	Nagusiki edo beti gaztelaniaz	Oharrak (zehaztapenak, edo ñabardurak)
Gurasoekin				
Anaia-arrebekin				
Ikaskideekin gelan				
Ikaskideekin gelatik kanpo				
Kuadrillan				
Whatsappez edo sare sozialetan				
Eskola orduz kanpoko jardueretan				
Telebista ikustean				
Irakurketetan				

Ikasleek, askotan bi kodeak nahasten dituztenez (“euskañola” edo “frantseuskara”), zalantza sor dakieke. Kasu horretan, beraiek baloratu beharko dute, kodeak nahasten dituztenean hizkuntza bakoitzak zenbateko proportzioa hartzen duen, laukitxo bat ala beste markatzeko.

Bestalde, oharrak jaso behar izatea ere gerta liteke. Esate baterako, ikasle batek anaiarekin gaztelaniaz eta ahizparekin euskaraz egiten duelako, edo, jarduera batean begiralearen arabera hizkuntza bat ala beste darabilelako... Kasu horietan, batez bestekoa markatuko dute taulan, baina oharrak jasota.

Ikasle bakoitzak bere taula bete duenean, jasotako emaitzak partekatuko ditu talde txikian. Taldekide bakoitzak bere datuen berri emateko denbora tarte bat izango du eta denen artean ondorio nagusiak aterako dituzte. Taldeko idazkariak taula berri bat bete dezake taldekide guztien emaitzak bateratuz eta ondorioak gordeaz.

Talde txikietako lana amaitzen denean, bozeramaileek talde handian aurkeztuko dituzte jasotako datuen ildo nagusiak, ikusi ahal izateko, talde guztietan joera beretsuak agertu diren edo aldeak agertu diren batzuetatik besteetara. Horretarako, ahozko azalpenak emateko gidaz balia daitezke.

3. JARDUERA: BIDAIA BATEN HASIERA

Hizkuntza-aldaketarako prozesua bidaia baten gisa irudikatu daiteke. Halaxe egin du Karmelo Ayestak, “Goza daiteke gehiago. Euskaldun baten hizkuntza-bidaia” liburuaren egileak. Bere esperientziaren berri ezagutuko dugu bideo honetan:



Karmelo Ayesta

Karmelo Ayestaren ideiak entzun eta gero, galdera bat egin genezaioke gure buruari: nola imajinatzen dugu hitz egingo dugula hemendik 20 urtera bikotekidearekin, seme-alabekin (baldin baditugu) edo lankideekin (Iana Euskal Herrian eginez gero), esate baterako? Ikasle bakoitzak lan-koadernoko taula beteko du galdera hauek erantzunez.

Taula bete ondoren, hurrengo galdera honi erantzun beharko diote lan-koadernoan: “Egoera horretara iristeko, gaur egun egiten duzun euskara baino gehiago egin beharko al duzu?”

- ☐ Bai, gaur egun egiten dudana baino gehiago egin beharko dut.
- ☐ Ez, gaur egun egiten dudanarekin nahikoa dut helburua lortzeko.

Talde handian eta gelakideen artean, lehen taularen erantzunak nola banatu diren ikusiko dugu, eta zergatiak komentatuko ditugu. Une hau garrantzitsua izango da, irakasleak neurtzeko, hizkuntza-aldaketarako zer nolako giroa dagoen gelan. Garrantzitsua da, egon daitezkeen indarguneak identifikatzea eta “fokoa” hor jartzea.

Bigarren galderak, pista asko emango dizkigu gelako giroaren inguruan. Gerta daiteke baieztokoak nagusi izatea edo berez euskaraz asko egiten delako ezeztokoak agertzea. Bi kasu horietan ez dago arazorik. Arazoa sor liteke, euskaraz gutxi egin eta ezeztoko asko dagoenean. Kasu honetan, egokiagoa litzateke, emaitza horiek talde handian ez agertzea eta erabilera hobetzeko helburuak aurrerago identifikatzea eta gelako giroa lantzen joatea.

Bestalde, ohartu bereziki ikasleei galdegin diegula erabileraren inguruan; erabilera zuzenean lotuta dago gaitasun komunikatiboarekin, baita erabilera-ohiturekin ere. Zenbait esparrutan, euskara erabiltzeko baldintza nagusiak izango dira erabilera-ohiturak, erabiltzeko aukerak eta gaitasun komunikatiboa. Baldintza hauen inguruan ere talde handian gogoeta liteke ikasleekin; eurek baldintza hauek nola bizi dituzten galdeginez. Ildo horretatik, gogoetarako proposamen hauek egin litezke ikasleekin:

- Zein ohitura aldatu beharko liratekeen gogoetatzea.
- Zertarako gaitasuna beharko litzatekeen gogoetatzea.
- Zein aukera beharko liratekeen gogoetatzea.

Amaitzeko, gai honen inguruan, unibertsitatean egindako kale-inkestaren bideoa ikusiko dute talde handian. Ea inkestan, ezaguna egin den norbait identifikatu duten ikasleek! (inkestatuetako bat Iñaki Artola pilotaria baita).



4. JARDUERA: ESKETX BAT ANTZEZTUKO DUGU

Sekuentzia honen amaieran esketx emanaldi bat antolatuko dugu eskolan beste ikasleen aurrean. Guri “Orain hala, gero nola?” izena bururatu bazaigu ere, beste bat jar diezaiokezue, noski.

Esketx horiek bi zati izango dituzte beti: “orain nola” (euskara gehiago erabili nahi den egoera horretan gaur egun zenbat eta nola egiten den irudikatuko duen zatia) eta “etorkizunean nola” (helburua lortuz gero nola irudikatzen duten ikasleek egingo luketela).

Lehenengo eta behin, beraz, esketx bat zer den eta zer nolako ezaugarriak dituen jakin beharko dugu. Harluxet hiztegiak, esate baterako, honela definitzen du:

sketch

(ing.ezko hitza) iz. Antzerkian, zinean, irratan edo telebistan, eszena laburra, gehienetan komikoa; komiki-banda eszenifikatua.

Esketxen ezaugarrien arteko honako hauek nabarmenduko ditugu:

- Laburrak izan ohi dira: minutu bat-bost minutu artean.
- Antzerki txikiak izan ohi dira. Antzerki txiki horretan argi gelditzen da egoera zein den, baita eman nahi den mezua ere.
- Errealitatea irudikatzen da bi abiapuntutatik: abiapuntu komikoa edo dramatikoa.
- Partaideek antzeztu egiten dute egoera jakin hori: egoera horretako espazioa prestatu eta antolatzen da, egoera horretako pertsonaia bakoitzaren gorpuzkera, jantziak eta hitz egiteko moduak argiak eta markatuak izaten dira.

Ondoren, talde txiki bakoitza euskarazko eredu bila abiatuko da eta eredu gisa erabil daitezkeen 2 esketx bilatu beharko dituzte (ikusitakoen artean onenak iruditzen zaizkienak). Ondoren, esketxetan honako ezaugarriak identifikatu beharko dituzte lan-koadernoko taula erabiliz (Arkatzak erdira teknika erabil liteke taula betetzeko):

Esketxaren gaia	
Iraupena	
Esketxaren tonua (komikoa / dramatikoa)	
Pertsonaien ezaugarriak	
Pertsonaien hizkera(k)	
Pertsonaien gorpuzkera	
Pertsonaien janzkera	
Espazioaren antolaketa	
...	

HABEren Ikasbil webgunean baduzue euskararen inguruko esketx batzuen erreferentzia:

http://www.ikasbil.eus/web/ikasbil/dokutekako-fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_fLB1&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-1&p_p_col_count=1&groupId=10138&articleId=1811165

Talde txikitako lana amaitzean talde bakoitzeko bozeramaileak, ahozko azalpenak emateko gida aintzat hartuz bere emaitzak aurkeztuko ditu talde handian eta esketx eredugarriak ikusiko dituzte.

GARAPEN FASEA

5. JARDUERA: HELBURU BILA

Askotan, nahiz eta zerbaitetan hobetu nahi izan, ez da erraza izaten helburuak zehaztea eta lortu nahi dugun hori abstrakzioetik konkretura ekartzea.

Urte berria zetorrela eta, “Tribuaren berbak” saioan, hainbat pertsona ezaguni eta euskara ikasten ari zen hainbat ikasleri urte berriari begira eta euskarari zegokionez, zein helburu zuten zehaztea eskatu genien bideo honetan. Talde handian, zein asmo aipatu zituzten eta zertara konprometitu ziren ikusiko dugu.



Segidan, talde txikitan bilduta, ikasleei eskatuko diegu, entzun dituzten erantzunen artean, beraientzat egokiak izan daitezkeen bi helburu aukeratzea eta lan-koadernoan idaztea.

Helburuak identifikatu dituztenean, ikasle bakoitzak bere taldean, zergatik aukeratu dituen helburu horiek azalduko du eta denon artean komentatuko dituzte azaldutako iritziak.

6. JARDUERA: ETA NONDIK HASI?

Jarduera honi ekin aurretik, “Zergatik ez dugu egiten?” sekuentzian, euskara egitea galerazten zuten arrazoi nagusiak zeintzuk ziren gogoratuko dugu, aurrena. Talde handian errepasatuko ditugu, ezertan aldaketarik gertatu ote den ikusteko.

Orain, ikasleak euskararen erabilpena zertan eta nola hobetu dezaketen pentsatzen jarriko ditugu, baina aurretik, EMUN aholkularitzako Ainhoa Lasak azalduko digu zergatik egiten

dugun gaztelaniaz euskaraz egin genezakeen hainbat egoeratan eta zer egin daitekeen euskara gehiago erabiltzeko.



Ainhoa entzunda gero, sekuentzia honetako 2. jardueran osatu dugun zerrenda hartuko dugu eta ikasleei eskatuko diegu, bakoitzak, euskararen erabilpenari dagokionez urrats bat aurrera egiteko errazen egiten zaizkion 3 harreman-mota, esparru edo egoerak markatzeko.

Ondoren, ikasle bakoitzak, 3 hilabeteko epean (epea beste bat izan daiteke, noski), harreman-mota, esparru edo egoera horietan zein helburu lortu nahiko lituzkeen zehaztuko du.

Talde txikitik partekatuko dituzte helburu horiek eta beraien lorgarritasunaz eztabaidatuko dute.

7. JARDUERA: TALDEKO HELBURUA

Helburu indibidualak zehaztu ditugunez, taldearen erabilera hobetze aldera, lehen urratsa non eman genezakeen definituko dugu jarduera honetan.

Horretarako, lagungarri gertatuko zaigu, Euskal Herriko beste gazte batzuen iritziak eta esperientziak ezagutzea hurrengo bideoaren bidez. Gazte hauen artean jatorri desberdinetakoak daude, berauen euskararen erabilera mailak ere oso desberdinak dira eta egoera soziolinguistiko desberdinak dituzten zonaldeetan bizi dira.



Bideoak ikusi ondoren, talde txikitan aztertuko dituzten entzundakoak eta galdera hauek erantzun dituzte Orri birakariaren teknika erabiliz:

- Gazte hauen artean, zeinengandik sentitu zarete gertuen? Zergatik?
- Zein ideia, iritzi edo proposamen gustatu zaizue gehien?

Taldekieetako bat hasiko da galderak erantzuten. Ondoren, erlojuaren orratzen norabidean hurrengo taldekideak jarraituko du, honela, taldekide guztiek erantzun arte. Taldeko kide batek bere zatia idazten duenean, gainerako kideak adi egongo dira, lagundu egingo dute, zuzendu...

Azkenik, taldeko bozeramaileak aipatuko ditu talde handian beraien ekarpenak.

Galderak erantzun dituztenean, eta, talde txikitan beti ere, taldearentzako helburu bila hasiko dira. Helburu hori, talde osoa batera hartzen duena izan daiteke, edo nahiz eta denek batera ez egin, denek egiten duten jardura bati dagokiona izan daiteke (eskola orduz kanpoko kirola, esate baterako).

Aurrena, identifikatu beharko dute, beren ustez eta talde gisa, zein harreman-mota, esparru edo egoeratan hobetu dezaketen errazen euskararen erabilpena, lan-koadernoko taula betez.

Adibide batzuk emango ditugu hurrengo taulan, erreferentzia bezala erabili beharko bazenituzte:

		Harreman-mota edo esparrua	Helburua
Eskolan	Gela barruan	Irakaslearekin	Beti euskaraz egitea
		Ikaskideen artean	Ikasgai batean beti euskaraz egitea
	Gelatik	Atsedendian	Erdia behintzat euskaraz egitea
Eskolatik kanpo	Harreman-mota	Lokalean	Gelakoon artean erdia behintzat euskaraz
	Jarduera	Kirol-taldeetan	Monitorearekin beti euskaraz
			Ikasleen artean erdia behintzat euskaraz

Azaldu diren aukeretatik ikasleek bat aukeratuko dute eta 3 hilabetetan lortu nahiko luketen helburua zehaztuko dute, ahal dela, denen adostasunez. Eta horrekin batera, beste taldeen aurrean beren aukera defendatzeko argudioak bilatuko dituzte.

Ondoren, talde handian, bozeramaileek talde txikietako emaitzak aurkeztuko dituzte eta aukeratutako proposamenak zerrendatuko dituzte arbelean. Horretarako, ahozko azalpenak emateko gidaz balia daitezke.

Prozedura amaitzeko, bozketa egingo da eta taldearen helburua aukeratuko dute. Eta taldearen helburua zein izango den erabakitakoan, talde handian hori lortzeko aukerez, oztopoez eta hauek gainditzeko moduez hitz egingo dute.

8. JARDUERA: ESKETXA ZEHAZTEN

“Eta nondik hasi?” jardueran, helburu indibidualei begira azaldu diren harreman-mota, esparrua edo egoerak zerrendatuko dira talde handian (ikasleek markatu dituzten helburuekin). Modu honetan, jakin ahal izango dugu zeintzuk diren ikasleen artean gehien errepikatu diren jarduerak (5 nahikoa izan daiteke). Maila indibidualean agertu diren harreman-mota eta esparruei, talde gisa helburua lortzeko egin berri dugun jardueran azaldu direnak gehituko dizkiegu.

Gehien azaldu diren eremu eta jarduera horiek egokiak izan daitezke esketxak lantzeko.

Ikasleak, berriro, talde txikitan elkartuko dira eta irakasleak, aipatu eremu eta jarduerak banatu egingo ditu taldeetan.

Ondoren, talde txiki bakoitzak egokitu zaion egoeraren inguruko esketxa egin beharko du.

Behin, harremana edo egoera identifikatuta gero, esketxa idazten hasiko dira. Esketxaren zati bakoitzak minutua inguru iraun dezake eta bi zatien artean taldekide guztiek hartu behar dute parte horietan.

Lehen esan bezala, lehen zatian gaur egun nola egiten duten agertu behar dute eta, bigarrengoan, helburu duten egoera irudikatu behar dute. Umorea erantsiz gero, gainera, hobe!

GAUZATZE FASEA

9. JARDUERA: ERAGOZPENAK GAINDITZEKO AHOLKUAK

Aldaketa-prozesu bati ekin behar zaionean, garrantzitsua da bidean zer nolako oztopoak aurkitu daitezkeen aurreikustea, horiek azaltzen direnean, prest egoteko eta, gainditzeko bitartekoak eta estrategiak izateko.

Euskararen erabilpenean aurrera egin nahi duten pertsonak ere, maiz, horrelako ahuluneak sentitzen dituzte, bidean topatutako oztopoen ondorioz.

Hurrengo bideoan, EMUNeko Juanjo Ruizek azalduko digu erabileran aurrera egiteko ditugun eragozpenik handienak eta gaztelaniara bultzatzen gaituzten arrazoi nagusiak zeintzuk diren.



Juanjo Ruizek elkarrizketan honako oztopo nagusi hauek aipatu ditu: deserosotasuna, errespetu faltaren ideia, aurreiritziak eta emozio mugatzaileak.

Talde txikitan eta Orri birakariaren teknika erabiliz, ikasleek zehaztu beharko dituzte, beraien ustez, bai norbanako gisa eta bai talde gisa markatu dituzten helburuak lortzeko zein izan daitekeen oztoporik nagusiak (Juanjok aipatutakoa izan daiteke edo besteren bat) eta nola aurreikusten duten oztopo horiek gainditzea.

Taldekidetako bat hasiko da zerrenda osatzen. Ondoren, erlojuaren orratzen norabidean hurrengo taldekideak jarraituko du, honela, taldekide guztiek erantzun arte.

Ikasle bakoitzak bere iritzia emango du eta jarduera amaitzeko talde txikitan eztabaidatuko dute ea denak ados dauden eragozpen horien garrantziarekin eta horiek gainditzeko planteatu diren estrategiekin.

10. JARDUERA: ATZERA BEGIRAKOA

Sekuentzia honetan ere asko ari gara ikasten. Orain arte ikasitako guztia oinarritzat harturik, ikasleek Txuletariora osatuko dute. Horretarako lan-koadernoan dagoen taula beteko dute eta ebaluatuko direnak, bertan jarritako irizpide eta edukiak izango dira.

11. JARDUERA: ESKETXA PRESTA DEZAGUN

Esketxa prestatzeko eta entsaiatzeko ordua iritsi da. Testua idatzita dagoenez, taldekideen artean honako ardurak banatu beharko dituzte:

- **Produkzio-arduraduna.** Esketxerako behar den guztia prest edukitzeaz arduratuko da: entsaiatzeko lekua, objektuak, arropak, edo behar den zernahi.
- **Grabaketa-arduraduna.** Komeni da entsaioa grabatzea, errepasatu eta hobetu ahal izateko. Grabaketarako materiala lortzeaz eta grabatzeko leku egokia aurkitzeaz arduratuko da.
- **Gidoi-arduraduna.** Entsaioarako gidoiak inprimatuta izateaz arduratuko da eta entsaioan zehar gidoian sor daitezkeen aldaketak jasoko ditu.
- **Zuzendaria.** Esketxaren eszenaratzearen ardura izango du. Aktoreak zuzenduko ditu eta hauek non eta nola kokatuko diren zehaztuko du.

Entsaioa eginda gero, sortu diren oharrak jaso eta grabatutako bideoa ikuskatuko dute, esketxaren behin betiko bertsiora iritsi arte.

Emanaldiari begira, bestalde, 'Antolakuntza-taldea' antolatu beharko litzateke talde txikitako partaide banarekin emanadia antolatzeaz arduratu dadin: eguna eta ordua finkatu, ikastetxeko beste geletan publizitatea egin eta beraien partaidetza berretsi, aurkezlea izendatu, emanaldiaren lekua prest eduki.

XEDEA GAUZATZEA

12. JARDUERA: ESKETXEN EMANALDIA GAUZATZEA

Eguna iristen denean, aretoa prest egongo da. Aurkezle lanak ikasleetako batek egin ditzake edo irakasle batek bete funtzio hori. Garrantzitsua da aurkezle honek ondo adieraztea ikusleei, zergatik antolatu den emanaldia eta zein den bere helburu nagusia.

Ondoren, talde bakoitzak bere esketxak aurkeztuko ditu ikusleen aurrean.

Nahi izanez gero “ikusleen saria” antolatu liteke, ikusleek beren esketxik gustukoena aukeratu dezaten.

EBALUAZIOA

13. JARDUERA: LANEN EBALUAZIOA

Sekuentzia honen ebaluazioa bi txandatan egin behar da talde handian.

Lehen txandan, esketxen edukiak, horietara iristeko prozedurak eta jarri diren helburuak aztertuko dira. Horretarako, sekuentzian zehar ikasitakoa ebaluatuko da, Txuletarioan jarritakoa aintzat hartuz. Lehen txanda honetan, aztergai hauek ere ukituko dira: euskara gehiago erabiltzeko bakarka nahiz talde gisa aipatu diren aukerak eta konpromisoak; aipatutako helburuetara iristeko aurreikuspenez, aukerez eta oztopoez hitz egin dezakete.

Ebaluazioaren bigarren txanda, hiru hilabete pasa eta gero egin beharko da, markatu diren helburuen mugaeguna iristen denean. Kasu honetan, onartutako helburuen betetze-maila aztertuko da, bi faktore-mota nagusi bereiztuz:

- Helburuak lortzen lagundu duten faktoreak.
- Helburua lortzea eragotzi duten faktoreak.